

**EBAZPENA, 2009KO AZAROAREN 5EKOA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEARENA, EAE-KO IZENDEGI GEOGRAFIKOA EGITEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEAN ESLEITZEKO DENA (K-37/2009 ESPEDIENTEA).****GERTAKARIAK**

LEHENENGOA.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2009ko urriaren 9ko Ebazpenaren bidez, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko K-37/2009 espedientea onartu zen, esleipen prozedura bezala publizitaterik gabeko negoziatua erabiliz, Alor Publikoko kontratuen Legeko 158 e) eta 161.2 artikuluekin bat etorritz.

BIGARRENA.- Espediente horretarako, eta egindako gonbidapenen arabera, Kultura Saileko Erregistroan honako enpresa hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

-ESTUDIOS GIS- GEOGRAMA (Aldi baterako enpresa elkartea).....2009/10/28.....sarrera ZB 944146.

LAUGARRENA.- 2009ko azaroaren 5ean egindako bileran, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako enpresen kontratatzeko gaitasuna aztertu eta gero, enpresek aurkezturiko dokumentazioa zuzena eta nahikoa zela ondorioztatu zuen, administrazio-klausula zehatzen agirian xedatutakoa betetzen duelako. Horrenbestez, proposamena aurkeztu zuten enpresa guztiak lizitaziora onartu zituen.

BOSGARRENA.- onartutako enpresak egindako eskaintza ekonomikoa honako hau izan da:

Enpresa	Proposamena (BEZ barne)
ESTUDIOS GIS- GEOGRAMA (Aldi baterako enpresa elkartea)	68.150 €

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek enpresek aurkezturiko dokumentazio teknikoa eta eskaintza aztertu eta baloratu dituzte, kontratua arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENGOA.- Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak egindako txostenean kontratua ESTUDIOS GIS- GEOGRAMA aldi baterako enpresa elkarteari esleitzea proposatzen da, oro har hartuta egokia delako administrazioaren interesei begira, ikuspegi tekniko batetik aztertuta.

HIRUGARRENA.- ESTUDIOS GIS- GEOGRAMA aldi-baterako enpresa elkarteak egiaztatu ditu bere gaitasuna eta kaudimena, bai eta eskatzen diren gainerako betekizun legezko eta formalak ere.



LAUGARRENA.- 2009ko irailaren 3an kontratuari dagozkion obligazioei aurre egiteko kreditua kontsignatu da 09 0 1 10 22 0000 4 632 01 471152 002 U aurrekontu partidan.

BOSGARRENA.- Urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 144 eta 145 artikulua eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 7.2.i artikulua kontratazio alorreko hainbat eskumen ematen dizkirate.

Baldintza-agiriak, espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi dira, eta kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren proposamen-txostena eta Kultura Sailaren Kontratazio Mahaiaren erabakiak. Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

LEHENGOA.- GEOGRAMA, S.L.(IFZ B-01256247) eta ESTUDIOS GIS, S.L. (IFZ B-01267541) aldi-baterako enpresa elkarteari esleitzea behin-behinean EAE-ko Izendegi Geografikoa egiteko kontratua (K-37/2009 espediente), enpresak egindako proposamen teknikoaren arabera esleipen kopurua 58.750€ izanik eta 9.400€-ko BEZarekin, kopuru guztia 68.150€ izanik, aurrekontuetan honela banaturik:

- 2009. urtea: 17.037,50 €
- 2010. urtea: 51.112,50 €

Lana gauatzeko epea 10 hilabetekoa izango da.

BIGARRENA.- Behin-behineko esleipendunak 15 lan-eguneko epean, ebazpena kontratantearen profilean argitaratu eta ondorengo egunetik kontatzen hasita, Baldintza berezien pleguko 20. atalean adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, bertan dagoelarik Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean izatea eta behin-betiko bermea jartzea Euskal Herriko Diruzaintza Orokorraren aurrean, Urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 84 artikuluan adierazten diren moduetan, kasu honetan kopurua 2.938€ izanik.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau publikatu kontratantearen profilean, www.euskadi.net, eta esleipen prozesuan parte hartu duten enpresei jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 5a



RAMON ETXEZARRETA AIZPURU
Hizkuntza Politikarako sailburuordea